

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

11/2026 Foru Dekretua, martxoaren 31koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan dauden Arabako Lurralde Historikoko biztanleguneetan etxebizitzak birgaitzeko ekintzak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileei

Programa hau sortu da landa ingurunean etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunak arintzeko, eta helburua da eskuragarri dauden etxebizitzak eskaintza handitzea. Horretarako, alokairuan dauden higiezinak merkaturatuko dira, jabeei berme bat eta zenbait zerbitzu emanaz. Hala ere, aipatutako etxebizitzek gutxieneko bizigarritasun baldintza batzuk bete behar dituzte, eta higiezina programan sartu aurretik egiaztatuko dira.

Biztanleei etxebizitza eskuratzen laguntzeko programa horren helburua, gaur egun, hutsik dauden etxebizitzak alokairuen merkaturatzea besterik ez da. Horrela, mota horretako etxebizitzak eskaintza nabarmen handituko da, eta horri esker, alde batetik, alokatutako etxebizitza kopuruak gora egingo du, eta pertsonak alokagai dagoen etxebizitza bat eskuratzeko baldintzak hobetuko dituzte.

Horrela, etxebizitzak birgaitzeko laguntza finantzarioa eman nahi da, ondoren Arabako Foru Aldundiaren etxebizitzak alokatzeko berme programan sar daitezen.

Orain onesten den araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, lortu nahi diren helburuak betetzeko ezinbestekoa den erregulazioa baitu. Aldi berean, segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen da, honelako dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen arau esparrua ezartzen baita era honetan.

Era berean, programa hau idazteko kontuan hartu da hauetan jasotako arau esparrua: batetik, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa, eta, bestetik, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarako Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duena.

Foru dekretu hau egiteko, arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioak hartu dira kontuan, Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3.2 artikulua betez.

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24.5 artikulua xedatzen duenez, foru diputatuei dagokie Diputatuen Kontseiluari proposatzea beren sailari esleitutako gaiei buruzko foru dekretuak onets ditzala.

Horrenbestez, aginduzko txostenak aztertu dira, eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa Onestea etxebizitzak birgaitzeko ekintzak finantzatzeko lehia libreko dirulaguntzen oinarri arautzaileak, ondoren etxebizitza horiek Arabako Foru Aldundiak duen etxebizitzak alokatzeko berme programan sar daitezen.

Oinarri arautzaile horiek foru dekretu honen eranskinean jasotzen dira.

Bigarrena. Argitara ematea foru dekretu hau ALHAOn.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 31

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GARCÍA GORBEÑA

I. ERANSKINA

Lehia libreko araubideko dirulaguntzen oinarri arautzaileak, etxebizitzak birgaitzeko ekintzak finantzatzea zuzenduak, ondoren etxebizitza horiek Arabako Foru Aldundiak duen etxebizitzak alokatzeko berme programan sar daitezen

1. Xedea

Diruz lagundu ahal izango dira 20.000 biztanletik beherako udalerrietako herriguneetan etxebizitzak birgaitzeko egiten diren ekintzak.

Dirulaguntzaren xedea da aipatutako biztanleguneetan etxebizitzak birgaitzeko lanak finantzatzea, ondoren deialdi bakoitza onesten den unean Arabako Foru Aldundiak indarrean duen etxebizitzaren alokairua bermatzeko programan sar daitezen. Deialdiak une bakoitzean indarrean dagoen programa eta programara atxikitzeko epeak zehaztuko ditu.

2. Diruz lagun daitezkeen jarduketak

Diruz laguntzeko modukotzat joko dira eta, beraz, deialdi honen kontura finantzatu ahal izango dira, deialdi bakoitzean zehazten diren koefizienteekin:

- Birgaitze proiektuak idaztea.
- Birgaitzearen gauzatze materiala, urbanizazio jarduketak barne.
- Proiektua egikaritzeko zuzendaritza teknikoa.

Diruz lagundu ahal izango dira biztanlegune horietan biztanleriari eusten laguntzeko birgaitze jarduera guztiak, baldin eta honako tipologia hauetan sailkatzen badira:

- Etxebizitzetan birgaitze integral kontserbatzailea aurreikusten duten esku hartzeak:
 - Fatxaden eta estalkien egitura egokitzeko eta/edo birgaitzeko obrak.
 - Bizigarritasuna egokitzeko eta/edo akaberak egiteko barneko obrak.
- Etxebizitzak partzialki birgaitzea edo eraberritzea aurreikusten duten esku hartzeak:
 - Fatxaden eta estalkien egitura egokitzeko eta/edo birgaitzeko obrak.
 - Bizigarritasuna egokitzeko eta/edo akaberak egiteko barneko obrak.

Nolanahi ere, pertsona onuradunek birgaitu beharreko etxebizitzaren jabeak, gozamenak edo beste edozein erabilera edo gozamen eskubideren titularrak izan beharko dute, betiere indarrean dagoen legeriaren arabera ondoren alokairua ahalbidetzen badute. Birgaitzeko jarduketek indarrean dagoen hirigintza legeria bete beharko dute.

Urtez urteko deialdian zehaztuko dira babespeko obrek bete behar dituzten baldintzak.

3. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak eta gastuak eta baldintza gehigarriak

1. Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jarduketaren izaera izan eta behar-beharrezkoak direnak; bai eta BEZa ere, onuradunak berreskuratu ezin badu.

2. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein erakunde pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza zein diru sarrera batzuekin batera, ezin da izan jarduketaren kostua baino handiagoa.

4. Pertsona fisiko onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu behar dituzte, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.

5. Etxebizitzak osorik alokatu beharko dira, eta ezin izango da horien zatirik alokatu.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikulua arabera, ondoak dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal aginte publikoen jarduketak gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak: tratu berdintasuna; aukera berdintasuna; dibertsitatearekiko eta ezberdintasunarekiko errespetua; genero ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; sexuaren arabera rola eta estereotipoak desagerraraztea, eta koordinazioa eta lankidetzak.

Halaber, lege beraren 46.1 artikuluan jasotzen denez, hartu beharreko neurriak hartuko dira ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraio politiketan eta programetan genero ikuspegia txertatuko dela bermatzeko; gainera, besteak beste, honako gai hauek hartu behar dira kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egin eta pertsonak zaintzea erraztea, bai eta bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztea ere, eta politika eta programa horiek diseinatu eta gauzatzean emakumeen parte hartze handiagoa sustatzea.

Bat etorri Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoaren 31.1 artikuluan hiri politikei, lurralde antolamenduari eta etxebizitzari dagokionez xedatutakoarekin, administrazio publikoetako politika eta planek, etxebizitzarako irizpidearen arloan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragingarria izateko neurriak barneratuko dituzte.

4. Baliabide ekonomikoak

Kasuan kasuko deialdiak zehaztuko du oinarri hauen bidez deitutako dirulaguntzak guztira zenbatekoak izango diren eta aurrekontuko zein partidari egotziko zaizkion.

5. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan ahalko dira 20.000 biztanletik beherako udalerrietako biztanleguneetan kokatutako etxebizitzaren gaineko eskubide erreal baten jabe edo titular diren pertsona fisikoak, bigarren oinarrian definitutakoaren arabera.

Ezin dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu direnak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako kasuetan sartuta daudenak ere.

6. Dirulaguntzak emateko prozedura. Dirulaguntzen zenbatekoa

Lehia libre bidez emango dira dirulaguntzak.

Birgaitze proiektuak Lurralde Oreaken Saileko zerbitzu teknikoek aginduko dituzte, eskaera hurrenkerari jarraituta.

Diruz lagundu daitekeen gehieneko ehunekoa birgaitze jarduketaren guztirako kostua oinarri hartuta kalkulatu da. Jardueraren kostutzat hartuko da bigarren oinarrian zehaztutakoa, onuradunak berreskuratu ezin duen BEZaren ehunekoa sartuta egongo da.

Pertsona fisiko onuradunak ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik 10 egun balioduneko epean dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badio, dirulaguntzaren baldintzak onartzen dituela ulertuko da.

Hornidura agortu ondoren dirulaguntzarik gabe geratzen diren eskaerak poltsa batean sartuko dira aurkezpen hurrenkeran. Eskatzaile hauek dirulaguntza jasoko dute hasieran banatutako funtsetako batzuk erabiltzen ez badira, hasieran emandako dirulaguntzei uko egin zaielako. Uko egiteak, gehienez ere, bi hilabeteko epean egin beharko dira, dirulaguntza eman dela jakinarazten denetik aurrera.

7. Ordainketa eta pertsona onuradunak dirulaguntza jasotzerakoan lortu nahi zuen helburua lortu izana justifikatzeko modua eta epea

Dirulaguntza ordaindu baino lehen, oro har, haren xede den jarduera egin dela justifikatu behar da. Hala ere, justifikatu beharreko aurrerakinak egotea aurreikusi ahal izango da urteko deialdian.

Dirulaguntza ordaintzeko, deialdian adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da. Kasuan kasuko deialdian ezarriko da hura aurkezteko gehieneko epea.

Justifikazioa honela egingo da:

a) Jarduketak egin izana justifikatzen duen memoria bat aurkeztuko da. Memoria horretan, eskaeran aurkeztutako aurrekontuaren partidak jasoko dira, laguntzaren xede den inbertsioa egiteko kostu hautagarri eta egindako gisa, eta benetako gauzatzearekin alderatuko da.

b) Obra ziurtagiriak, kakturen eta haien banku ordainagirien kopiak.

8. Dirulaguntza itzultzea

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan jasotako dirulaguntza itzuli beharko da.

Onetsitako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluaren xedatzen denarekin bat etorritik egingo da.

Ez-betetze kasuak:

a. Birgaitu ondoren, etxebizitza ez sartzeari deialdiak adierazten duen Arabako Foru Aldundiaren etxebizitzaren alokairurako berme programan, gutxienez 5 urtez.

b. Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada.

c. Dirulaguntza eskuratzen bada eskatutako baldintzak bete gabe.

d. Dirulaguntza helburu baterako eskatu eta horretarako erabiltzen ez bada.

e. Onuradunak ez baditu betetzen dirulaguntza jasotzeagatik jarri zaizkion baldintzak.

f. Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatu edo galarazten badira.

g. Jarduera egiteko behar den baino diru gehiago jasotzen bada. Kasu horretan, jardueraren kostuaren gaintik eskuratutako soberakina itzuli beharko da, bidezko berandutze interesak gehituta.

h. Ez bada aitortzen xede bererako beste dirulaguntzaren bat jaso dela.

9. Egiaztapena

Lurralde Oreka Saileko titularrak oinarri arautzaile hauek garatzeko egokitzen dituen ebazpenak emango ditu, dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta ekintzak abiarazi ahal izango ditu toki erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute berek egindako jardueri buruz Lurralde Oreka Sailek eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailek, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

10. Erantzukizunak

Pertsona fisiko onuradunek beren gain hartzen dute programa edo jarduera egiteko erantzukizuna, bai eta hura garatzeko indarrean dagoen legeriak galdatzen dituen baimenak eskatzea ere.

11. Aldaketak

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakiten bada. Horrelakoetan, diruz lagundutako jardueraren/jardueren gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitariora izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada eta bestelako erakunde publiko edo pribatu batengandik ere xede bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatuko da, eta dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izango da. Behin dirulaguntza onetsi eta gero, dirulaguntza emateko oinarri izan ziren egitatezko inguruabarrek dirulaguntza hori aldatzea badakarte, Lurralde Oreka Saileko diputatuak, onuradunaren proposamen arrazoitua aztertuta, dirulaguntza alda dezake, dagokion foru aginduaren bidez.

12. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Aldundiko Lurralde Oreka Sailek ebaziko du.

13. Errekurtsoak

Oinarri hauek eta berorien ondorioz sortutako administrazio egintza oro aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

14. Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan xedatzen ez dena hauek arautuko dute: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontuen urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorra; indarrean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua; Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikagarri diren gainerako arauak.